

Bizilagun agurgarriak,

2024ko ekainaren 17an urtebete egingo dugu Pasaia Udal Gobernuaren EH Bildu eta Podemos-Aliantza Berdea alderdiok Pasaia Udal Gobernua. Lan eta ikasketa sakoneko urtea izan da. Dakizuenez, herritik eta herrigintzatik datorren taldea da gurea, eta administrazio publikoaren erritmo geldo eta burokraziaren eskakizunetara egokitzea ez da izan lan makala. Hala eta guztiz ere, zuekin hartutako konpromisoari tinko eta arduraz heldu diogu, eta ereindakoa fruituak ematen ari da jada.

Lehen egunetik, azken agintaldietan etxe honetan ezarritako gobernantza-eredua birformulatzeko konpromisoa hartu genuen. Horren ordez, **hurbiltasunean, gardentasunean, herritarren parte-hartzean eta herritarrekiko etengabeko komunikazioan oinarritutako ereduaren aldeko apustua** egin dugu. Eta premisa higiezin horiek oinarri hartuta diseinatu dugu gure bide-orria.

Apustu irmoa egin dugu **gardentasuna, komunikazioa eta parte-hartzea udalgintzaren ardatz** bilaka daitezzen. Gobernuarekin hartu-emanen egoteko bide zuzenak berrezarri ditugu Alkateordetzen ateak berriro zabalduz. Dozenaka ekarpen, proposamen eta ezinegon jaso ditugu urte honetan zuen ahoetatik, eta arduraz erantzun diegu horiei. Gainera, Parte-hartze eta Komunikazio teknikari postuak sortu ditugu udalean, administrazioaren eta herritarren arteko lotura erraztu eta indartuz.

**Jendarte berdinzaleago baten aldeko gizarte programak** abiarazi ditugu, kolektibo kalteberenak ardatz. LGTB komunitateari erreparatzeko diagnostikoa egiten ari gara jada. Berdintasun saila indartu dugu bigarren teknikaria kontratatuz, eta indarkeria matxistari aurre egiteko gida nahiz jaietako protokoloa kaleratu ditugu. Etxez etxeko zerbitzuan, zaintza eredu berrira egokitutako formakuntza ematen ari gara langileei, eta baliabide mekaniko berriak eskuratu ditugu erabiltzaileentzako. Martxan da, halaber, zaintzaileak zaintzeko OK En Casa programa. Antxoko arreta zentroaren obra amaitu da; udazkenean zabalduko dugu. Eta komunitate berri bat eraikitze bidean, **'zu eta ni' izatetik 'gu'-a eraikitzen** hasiak gara: Bizikidetzeta plana garatzeko saioen lehen fasea amaitu dugu herritar, elkarte, udal teknikari eta politikariok; bazterkeria egoeran dauden norbanakoak gizarteratzeko etxebizitza komunitarioa eraikitze obra lizitatu dugu Lezo eta Oiartzunekin; eta arrakala digitala arintzeko batzarrak egiten ari gara jubilatuen elkarteekin, euren bizi-proiektuak duintasunez garatzeko dituzten beharrak diagnostiko zabal batean jasotzeko.

**Kultura eta euskara sustatzeko ekimenak** garatu ditugu esparru desberdinetan. Martxan dago Gazte mahaia, eta lan munduan indar berezia jartzen ari gara: kasu, portuko zortzi enpresak euskara batzorde berria osatuko dute. Herriko gazteekin soziolinguistikari erreparatu eta euren ekarpen nahiz proposamenak jaso ditugu. Bestalde, euskarara hurbiltzeko harrera saioak egiten ari gara jada ikasle berriekin, eta hurrengo ikasturtean baliabide gehiago jarriko ditugu horretarako. **Kirola eta gazteria zaintzea funtsezkoa da Pasaia osasungarri eta indartsuago baterako bidean.** Eta horregatik, hain zuzen, hobekuntzak egin ditugu Antxoko ludotekan eta San Pedroko gaztelekuan. Agintaldi Planean aurkeztutako kirol neurri gehienak martxan daude jada: triziklo paseoak adinekoentzat; turismo eta kiroleko diru-laguntzak; adinekoentzako xakea; egokitutako eskola kirolaren sustapena... Eskola Kirolerako laguntzak ere emango dizkiegu familia zaurgarrienei datorren ikasturtean, eta Trintxerpeko futbol zelaiko belarra aurki berrituko dugu.

Kultur esparruan, **Udal Liburutegien zerbitzua hobetzeko neurriak** jarri ditugu abian. Jaietarako aurrekontua handitu genuen, eta egitarau aberasgarriak osatu ditugu lau barrutietako Jai Batzordeekin bat. Kontu Kantari-Pasaia Solasaldi Musikatuak ekimenaren lehen saioak arrakasta handiz egin dira, euskal kantagintzaren eta sortzaileen mesedetan. Bestaldetik, herriko ondarea aintzatesteko lanean ere ari gara: eragileekin biltzen ari gara tokiko bilduma birtuala osatzeko, eta Pasaia Udalaren lau erraldoiak errestitatu ditugu (ekainaren 23an aurkeztuko dizkizuegu).

Pasaia bizigarriagoa eraikitze bidean, bizilagun **zaurgarrien mugikortasun eta bizi-kalitatea hobetuko duten azpiegitura-proiektuak** hasi eta aurreratu ditugu. Abian ditugun obren jarraipen estua egiten ari gara lehen urte honetan. Tartean, abiada onean doa Andonaegi auzoaren biziberritzea, eta datorren udazkenean Igeldo kaleko urbanizazioari eta ur depositu zaharrean

aparkaleku eraikina egiteko proiektuaren idazketari ekingo diogu. Antxoko topoarekin lotuta, hilabetean behin biltzen ari den foro iraunkorra eratu dugu ETS eta SOS Antxorekin, eta horrek obraren nondik norakoak adostu eta elkarrekin pentsatzeko aukera eman digu. Horrez gain, datorren udazkenean Gure Zumardiaren urbanizazio berria herritarrekin erabakitzeke parte-hartze prozesua jarriko dugu martxan, eta aipatzekoa da iragan neguan Luzuriagaren berri eman geniola bizilagunei, eta amaitzen ari garela jada obra proiektuaren idazketa. Donibanen, Meipiko igogailuaren lehen fasea amaitu eta berehala bigarren igogailuaren obrari ekingo diogu. Eta Trintxerpeko Andonaegi kalean igogailu berria jartzeko azterlana ere egiten ari gara.

Aipaturikoaz beste, **oinezkoen eta ibilgailuen mugikortasunean ere inbertsioak egin ditugu**, esaterako, Arraunlari kaleko asfalto eta arekak hobetuz edota Jaizkibel kalearen sarbidean solte zeuden harlauzak aldatuz. Mantenu lanak baldintzagarriak dira herritarren egunerokorako. Horregatik, parkeak hobetzeko partida bikoiztu dugu, eta horien egoeraren inguruko txostena egiten ari gara. Horrez gain, herriko paperontzien kokalekuaren azterlana egin dugu eta datozen asteotan horiek berri eta birkokatuko ditugu. Hondakinei lotuta, estreinakoz **udaran garbiketa zerbitzua indartu eta igande nahiz jaiegunetara zabalduko dugu**, uztailetik irailera.

Prebentzio neurriak ezartzen ari gara udal zerbitzu guztietan, langileen zaintza bermatzeko, eta luze eskatu izan duten lanpostuen balorazioa eta berrantolaketa egiteko zerbitzua esleitu dugu. Horrek Udaltzaingoaren birformulazioa ere ekarriko du, ofizialen oinezko presentzia handituz.

Gure herritik aletxoak jartzen ari gara, halaber, **burujabetza energetikoa areagotu eta klima larrialdia arintzeko** asmoz. Teilatu publikoetan beste hiru instalazio fotovoltaiako ezarri eta hiru ibilgailu elektriko berri eskuratu ditugu. Orain arte ahanzturan egon bada ere, bultzada handia eman diogu ingurumen arloari. Itsas Festibala jasangarriagoa bihurtu dugu, Erronka Garbia ziurtagiria ere eskuratu. Trintxerpeko Haur eskolaren patioa berdetu eta berri dugu, berotegi efektuko gasen isuriak murrizteko teknologia erabiliz. Gainera, datozen asteotan hondakinen eta zarataren ordenantzak onartzera goaz, bereizketa tasa hobetzeko kanpaina batekin bat eginez.

Orotariko **elkarte eta erakundeekin ibili gara lanean** hilabeteotan. Babes Zibila eta Katubihotzekin hitzarmen berriak sinatuko ditugu, euren jardunari babes handiagoa emateko, eta haiek emergentziatzeko kasuetan herriari ekarpen zabalagoa egitea lortzeko. Laurak Bat elkartearekin ere hitzarmen berria sinatuko dugu, eta pantaila informatiboak jarriko ditugu aste gutxi barru barruti guztietan, herriko produktu, zerbitzu eta bestelako berritasunen berri etengabe emateko.

Lehen egunetik heldu genuen gaietako bat aparkalekua da, nahiz eta, erpin askoko gaia denez, nahiko genukeena baino motelago doan prozesua. Edonola ere, dagoeneko **prest dugu aparkaleku ordenantza berriaren lehen zirriborroa**, eta hilabete honetan zehar partekatuko dugu zuekin, ekarpenak jasotzeko. Araudia indarrean sartu bitarte, behin-behineko arintze sistemak ezartzeko lanean ari gara; besteak beste, Pasaia-Lezo Lizeoarekin akordio bat erdietsi dugu aparkaleku eremu berri bat sortzeko Antxoko ikastetxearen zelaian. Espaloietako pasabideak eta ezindutako pertsonan aparkaleku bereziak ere eguneratzen ari gara.

Urte honetan lortutako mugarriak zerrendatuta, ohartu gara asko dela egin duguna. Neurri eta lan batzuk ikusezinak badira ere, **gure herrian erroko aldaketa sortzeko zimendu sendoak** dira. Pasaia berdinzaleagoa, euskaldunagoa eta justuagoa eraikitzeke zimenduak. Udalaren eta herriaren arteko harremana lankidetzan, anbizioan eta erantzukizunean funtsatuta sostengatuko dutenak.

Eskerrik hilabete hauetan emandako babesagatik. Aurretik dugun bidea zuekin soinez soin egiten jarraitu nahi dugu, atek zabalik gobernatuz, Pasaia martxan dagoen herria izaten jarrai dezan. **Batera garena** izaten jarrai dezan.

Adeitasunez,

**Teo Alberro**  
Pasaia alkatea